


---

## Beleak gai dira tresnak buruz egiteko

Cambridgeko eta Aucklandeko unibertsitateetako ikertzaileek frogatu dutenez, tresnak buruz egiteko gaitasuna dute Kaledonia Berriko beleek (*Corvus moneduloides*). Are gehiago, beste bele batzuek egindako tresnak oroitu eta diseinua hobetzeko ahalmena ere badute. Ikertzaileen esanean, gizakia alde batera utzita, oso espezie gutxi dute gaitasun hori.

Kaledonia Berriko beleek tresnak egiteko duten abilezia ezaguna zen, baina ez zekiten nola ikasten zuten tresnak egiten eta haiek hobetzen. Orain, esperimentu bat egin dute, entrenatutako belee-kin. Hain zuzen, neurri desberdinetako kartoi-zatiak makina batean sartzen irakatsi zieten zortzi beleri; trukean, sari bat jasotzen zuten beleek. Hori egiten irakatsi ondoren, kartoi handi bat eman zieten beleei, eta ikusi zuten beleak gai zirela kartoia zatitzeko eta gogoan gordetako itxura emateko zatiei. ●



Bele bat, berak urratutako kartoi-zatia dagokion lekuan sartzen. ARG.: Sarah Jelbert.

---

## Esklerosi anizkoitzaren aurrerapena moteltzen duen molekula bat aurkitu dute

Animalia-ereduekin egindako ikerketa batean, esklerosi anizkoitzaren aurrerapena moteltzen eta sintomak aritzen dituen molekula gako bat aurkitu dute. Zehazki, P2X4 izeneko errezeptore bat identifikatu dute zelula mikroglialetan. Animalia-ereduekin egindako esperimentuetan, frogatu dute errezeptore hori aktibatzen duten farmakoek gaixotasunaren sintomak hobetzen dituztela fase kronikoan, nerbio-ehuna leheneratzen laguntzen baitute.



Alberto Pérez, Aitor Palomino, María Domercq, Alazne Zabala eta Carlos Matute, EHUko, Achucarro zentroko eta ciberNedko ikertzaileak. ARG.: EHU.

Hain zuzen ere, esklerosi anizkoitzaren fase aurreratuan, hondatze neurologikoaren eragile nagusiak garuneko zelula mikroglialak dira, hantura kronikoa eragiten baitute. P2X4 errezeptorea aktibatuta, organismoaren berezko erantzun sendagarria sustatzen da, eta hantura arindu egiten da. Hala, gaitzaren aurrerapena moteldu eta gaixoaren bizikaltatea hobetzen da.

EHUk eta Achucarro zentroak gidatutako partzue-rgo batek egin du ikerketa, ciberNed eta CIC bio-maGUNEren laguntzarekin, eta [EMBO Molecular Medicine aldizkarian argitaratu dute](#). ●